



1/2017, otsailaren 15ekoa

EBAZPENA

Administrazio bereziaren eskalan, suhiltzaileen azpieskalan, azpieskala operatiboan, subofizial kategorian, barne-sustapenaren bidez sartzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Diputatuen Kontseiluaren 859/2016 Erabakia, abenduaren 20koa, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren 2016rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu, eta bete beharreko lanpostu hutsak, dagozkion hautaketa prozesuen bidez bete beharrekoak, biltzen dituen. Lanpostu huts horien artean 4 lanpostu daude administrazio bereziaren eskalan, suhiltzaileen azpieskalan, azpieskala operatiboan eta subofizial kategorian, eta barne-sustapen bidez beteko dira.

Beraz, hautaketa-prozeduraren oinarriak onartu dira.

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak onartutako Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren Estatutuen 15. artikulua xedatutakoaren arabera eta Administrazio Batzordeari entzun ondoren,

XEDATU DUT

Lehen.- Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, suhiltzaileen azpieskalan, azpieskala operatiboan, subofizial kategorian barne-sustapenaren bidez sartzeko deialdiaren oinarriak, gehigarri gisa ageri direnak, onartzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau eta gehigarri gisa dauden oinarriak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita, Administrazio Auzietarako Gasteizko epaitegietan, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpen hau onetsi duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Gasteiz,

Maria Pilar García de Salazar Olano
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren presidentea

Iñaki Guillerna Saenz
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren presidenteordea



ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOAREN ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALAN, SUHILTZAILEEN AZPIESKALAN, AZPIESKALA OPERATIBOAN, SUBOFIZIAL KATEGORIAN, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO HAUTAPROBEN OINARRIAK

1.-DEIALDIAREN XEDEA.

1.1.- Oinarri hauen xedea da Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren (aurrerantzean, Erakunde Autonomoa) administrazio bereziaren eskalan, suhiltzaileen azpieskalan, azpieskala operatiboan, subofizial kategorian, karrerako funtzionario sartzeko hautaprobak ezartzea.

1.2.- Hautapropa hauen xedea da hutsik dauden II. hizkuntza eskakizuneko (ez derrigorrezkoa) lau (4) subofizial lanpostu betetzea (sailkapeneko C1 taldea).

1.3.- Ezingo dira deialdi honetako lanpostuei dagozkienak baino pertsona gehiago izendatu.

2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZA EDO ESKAKIZUNAK.

2.1.- Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartzeko, ondorengo eskakizunak bete behar dituzte izangaiek:

a) Erakunde Autonomoko karrerako funtzionario izan behar dute.

b) Kabo kategoriko azpieskala operatibokoak izan behar dute (C2 Taldea).

c) Erakunde Autonomoan zerbitzu aktibo edo horren pareko egoeran, edo kabo kategorian zerbitzu berezietan egon behar dute.

d) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, bi urte beteak eduki beharko dituzte kabo kategorian.

e) Goi Mailako Batxiler edo bigarren mailako edo pareko Lanbide Heziketako titulua eduki behar dute.

f) C+E gidabaimena eduki behar dute.

2.2.- Arestiko eskakizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki beharko dira, eta hautaprobek iraun bitartean mantendu, karrerako funtzionario lanpostuan hasi arte.

3.- ESKAEREN AURKEZPENA.



3.1.- Hautaprobetan parte hartu nahi duten pertsonak 15 egun naturaleko epean aurkeztu behar dute eskaera, deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu ondorengo biharamunetik kontatuta.

3.2.- Eskaerak Erakunde Autonomoaren Administrazio Batzordeko presidenteari zuzenduko zaizkio (aurrerantzean, Administrazio Batzordeko presidentea), eta Erakunde Autonomoaren bulegoetan aurkeztuko dira, Gasteizko Probintzia plazako 5. zenbakiko 2. solairuan.

Aplikagarri izango da, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatutakoa.

3.3.- Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartzeko, izangaiek ondorengo hauek adierazi beharko dituzte eskaera-orrian:

a) Eskakizunak aurkezteko epearen amaierarako eskakizun guztiak eta bakoitza betetzen dituztela adierazi beharko dute.

b) Izangaiek ondorengo hauek adierazi behar dituzte:

1.- Datu pertsonalak.

2.- Oposizio faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan, euskaraz edo gaztelaniaz, egin nahi dituzten.

3.- Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko euskarako ariketa egiteko hautua, izangaia hala nahi badu.

3.4.- Datu pertsonalak babesteko araudia betetzeko, hautaketa prozesua kudeatzeko jasotako datuak Erakunde Autonomoaren Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa Zerbitzuak kudeatutako “*2016ko Enplegu Eskaintza Publikoa*” izeneko fitxategi batean sartuko dira, eta datu horietan sartzeko, datuok zuzentzeko, ezeztatzeko eta horiei aurka egiteko eskubideak egikaritu ahalko dira, Gasteizko Probintzia plazako 5. zenbakiko 2. solairuan.

Izangaiek berariaz onartzen dute, kontrakorik adierazi ezean, euren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako helburuetarako eta bertan adierazitako moduan erabiltzea.

4.- IZANGAIK ONARTZEA.

4.1.- Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Administrazio Batzordeko presidenteak agindu bat emango du, zeinaren bidez onartuko baitira onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak, baztertuen kasuan horretarako arrazoia adierazita.

Zerrenda honetan sartuta egongo da ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proba egiteko hautua egin den.



4.2- Zerrenda hori interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo orrian argitaratuko da.

Baztertuek edo argitaratutako datuetan okerren bat hautematen dutenek bost egun balioudun izango dituzte, zerrendak argitaratzen direnetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, egin ahal izan diren okerrak zuzentzeko eskatzeko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, Administrazio Batzordeko presidenteak beste foru agindu bat emango du, zeinaren bidez onartuko baitira txanda bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberekin, eta interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo/orrian argitaratuko dira.

Oposizio faseko probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko foru aginduan prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekursoak, eragindako pertsonen proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dute baliorik izango errekurso horiek ezesten badira.

Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea, oinarri hauen arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agiriaren bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

5.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

5.1.- Administrazio Batzordeko presidenteak izendatuko ditu hautaprobak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak.

Izendapenak interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo/ orrian argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendekin batera.

5.2.- Epaimahaiaren osaera orekatua izango da, sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkartza izanik, nola eta ez den behar bezala justifikatzen hala ez dagokiola.

Epaimahaia osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

5.3.- Epaimahaiak lehendakari bat eta bi kide izango dituzte, bakoitza bere ordezkoarekin, eta EAEko edozein herri administrazioetako edo horien erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko da.



Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

5.4.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da, baina soilik eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin eta ebaluatzeko.

5.5.- Hala komeni dela baderitzo, aholkulari espezialisten laguntza edukiko du Epaimahaiak. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

5.6.- Epaimahaikideek ez dute egiteko horretan jardungo, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan aipatutako egoeraren batean badaude, eta horren berri eman beharko diote Administrazio Batzordeko presidenteari.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

5.7.- Epaimahaia oinarri hauetara lotuta geratzen da, hautaketa prozesuaren faseen balorazioari dagokionez.

5.8.- Epaimahaia, beren jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko da. Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik bilduko da, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkoak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakariaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzintasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

5.9.- Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko eta izangaien nortasuna jakin gabe zuzentzeko.



Epaimahaiak baztertu egingo ditu izangaiak, baldin eta ariketa idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

Epaimahai Kalifikatzaileak gaitasuna edukiko du edozein probaren garapen normala eragozten duen edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera kompetentzia desleiala eragiten duen edozein izangai baztertzeko. Epaimahaiko presidenteak berehala emango dio halako jardueren berri Administrazio Batzordeko presidenteari, eta ekitaldiaren aktan jasoko ditu gorabehera horiek.

Era berean, hautaprobetan ez da onartuko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urra ditzakeen gailu edo baliabide teknologikorik.

Izangaien batek arau horiek urratuz gero, berehala baztertuko da probatik zein hautaketa prozesutik.

5.10.- Hautaketa prozesuaren edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu izangaien batek ez dituela deialdiaren eskakizunak betetzen, izangaia baztertzeko proposatuko dio Administrazio Batzordeko presidenteari, izangaiak egindako okerrean nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere aldez aurretik interesdunari entzun ondoren.

5.11.- Epaimahaiak oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko ditu, eta behar diren erabakiak hartuko ditu deialdia era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

5.12.- Egoitza: Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Erakunde Autonomoaren bulegoetan, Gasteizko Probintzia plazako 5. zenbakiko 2. solairuan, edukiko du Epaimahai Kalifikatzaileak helbidea.

6.- DEIALDIAK, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA.

6.1.- Hautaprobak ez dira hasiko deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu eta hilabete baino lehen.

6.2.- Oposizio aldiko ariketetarako deialdia onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera egingo da.

Hautaketa prozesuaren ondoriozko komunikazio eta jakinarazpen guztiak interneteko [www.araba.eus/PortalEmpleo/helbidean argitaratuko dira](http://www.araba.eus/PortalEmpleo/helbidean_argitaratuko_dira).

Argitalpen guztietan adieraziko da horren data, eta hurrengo egunetik kontatuko dira dagozkion erreklamazioak eta errekursoak ezartzeko epeak.

7.- SARTZEKO SISTEMA ETA HAUTAKETA PROZESUA.

Deialdi honetako hautaketa oposizio-lehiaketako sistemaren bidez egingo da.



8.- OPOSIZIO FASEA.

Oposizio fasean ariketa bat egin beharko da; derrigorrezkoa eta baztertzalea izango da, eta oinarri hauen eranskinean ageri den gai-zerrendarekin lotutako idatzizko proba praktikoa bat izango da.

Ariketari 0-100 puntu emango zaizkio, eta ariketa gainditzeko 50 puntu lortu beharko dira gutxienez.

8.1.- Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Epaimahaiak ariketaren eguna, ordua eta lekua adieraziz egindako deiari kasu egiten ez dioten izangaiaak automatikoki geratuko dira hautaketa prozesutik kanpo. Ezohiko egoerek justifikatuta egon beharko dute, eta Epaimahai Kalifikatzaileak aztertuko ditu.

Arau hori bera aplikatuko zaie edozein proba hasi ondoren sartzen diren izangaiei.

8.2.- Ariketaren behin-behingo emaitzak argitaratu ondoren, bost egun baliodun edukiko dituzte izangaiek ariketa horren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko Epaimahai Kalifikatzaileari.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, Epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du, amaitutzat joko du oposizio fasea, eta Lehiaketa Faseko merezimenduak justifikatzeko epea ezarriko du, 9. eta 10. oinarrietan ezarri bezala.

9.- EUSKARA.

9.1.- Euskara jakitea merezimendu gisa balioetsiko da lehiaketa fasean, egiaztatutako hizkuntz eskakizunaren arabera.

9.2.- 1. eta 2. hizkuntza eskakizunak egiaztatze probak egingo dira, eta borondatezkoak izango dira.

Hala ere, hizkuntza eskakizunak egiaztatze probak egin aurretik, Epaimahai Kalifikatzaileak epe bat irekiko du hizkuntza eskakizuna aurrez egiaztatuta duten izangaiek egiaztapen horren ziurtagiria aurkez dezaten, eta euskarako proba egitetik salbuetsita dauden izangaien zerrenda argitaratuko du.

Hizkuntza eskakizunak agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango dira (azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zenbakia):

a) 2. hizkuntza eskakizunerako:



- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.
- Osakidetzaren ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.
- 2. mailako ziurtagiria, HABErena
- Ertzaintzako 1. HE
- Irakaskuntzako 1. HE
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 4. maila (ikasketa plan zaharrear).
- Hizkuntza eskola ofizialetako maila aurreratua.

b) 1. hizkuntza eskakizunerako:

- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.
- Osakidetzaren ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.
- 1. mailako edo goragoko ziurtagiria, HABErena
- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 3. maila (ikasketa plan zaharrear).
- Hizkuntza eskola ofizialetako erdiko maila

Aplikatzekoa izango da, orobat, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zein unetan egingo den euskara ariketa.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proben behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek bost egun baliodun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak proben behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

9.3.- Euskara maila merezimendu gisa balioetsiko da, gehienez ere 10 punturekin.

Puntuak egiaztatutako euskara mailaren arabera banatuko dira, ondorengo modu honetan:

- 1. hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea: 5 puntu.



- 2. hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea: 10 puntu.

Urriaren 16ko 222/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, Erakunde Autonomoak argibideak eskatu ahal izango ditu hautaketa-prozesu honetan parte hartzen duten izangaiek euskararen jakite-maila egiaztatzeko lortutako egiaztagiriei buruz. Hautaketa prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar Erakunde Autonomoari baimena ematea datu horiek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) kontsultatzeko, baita aurkeztutako tituluak zein mailarekin parekatuta dauden ere.

9.4.- Epaimahai Kalifikatzaileak interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo/ helbidean argitaratuko ditu hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proben emaitzak.

10.- LEHIAKETA FASEA.

10.1.- Lehiaketa fasea izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta balioztatzeko izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleitu zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera. Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango, baina bertan eskuratutako puntuak ez dira aintzat hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Hala, oposizio faseko ariketaren behin betiko emaitzen argitalpenean bost egun balioduneko epea ezarriko da lehiaketa fasean konputatutako diren merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, euskararen ezagutza salbu, hori egiaztatzeko 9. oinarrian aurreikusitako proba egin, edo dagokion egiaztagiria 9.2 oinarriaren bigarren paragrafoan adierazitako epean aurkeztu beharko baita.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak izango dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Inolako kasutan ere ezingo dira balioztatu behar bezala alegatu ez diren eta ezarritako epean egiaztatu ez diren merezimenduak. Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak egoki deritzon dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatu ahal izango die izangaiei, alegatutako eta egiaztatutako eskarmentua merezimenduen baremoaren eskakizunekin bat datorren zehazteko.

10.2.- Merezimenduen fasea ondorengo baremo honen arabera balioetsiko da:

A.- Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikuluan arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratadun gisa, subofizial kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.



Hilabete oso bakoitzeko 0,30 puntu eskuratuko dira, 17 puntu gehienez ere.

B.- Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratadun gisa, kabo kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.

Hilabete oso bakoitzeko 0,20 puntu eskuratuko dira, 12 puntu gehienez ere.

C.- Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratadun gisa, suhiltzaile kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.

Hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu eskuratuko dira, 6 puntu gehienez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokide joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetza finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

Erakunde Autonomoan egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz konputatuko dira.

Gainerako herri administrazioetan egindako zerbitzuen denbora abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskineko erudian egiaztatuko da. Edozein kasutan, desglosatu egingo dira, aldi bakoitzari dagozkion eskala, azpieskala, taldea eta maila zehaztuz.

Zerbitzuak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira, eta batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabete gisa, 180 egun naturalen batura sei hileko gisa, eta 365 egun naturalen batura urte gisa.

10.3.- Alde batera utzita euskararen ezagutzen gainean 9. oinarrian ezarritakoa, gainerako merezimenduak soilik konputatuko dira eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta.

11.- LANGILEAK HAUTATZEA.



11.1. Behin alegatutako merezimenduen balioespena eginda, Epaimahai Kalifikatzaileak interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo/ helbidean argitaratuko du proba gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda, oposizio eta lehiaketa faseetan eskuratutako puntuen arabera ordenatuta.

Berdinketarik egonez gero, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikularekin eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikularekin bat etorritik, emakumeei emango zaie lehentasuna, subofizial kategorian Erakunde Autonomoaren plantillaren ehuneko 40ko ordezkartza eduki arte; horretarako, eskaintako lanpostu hutsak zein karrerako funtzionarioek betetzen dituztenak hartuko dira aintzat.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, berdinketa hausteko lehentasun ordena hurrenez hurren irizpide hauei jarraituz ezarriko da:

- 1) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, baldin eta denbora hori lehiaketa aldian balioztatu beharreko merezimendua bada.

Hala eta guztiz ere berdinketarik badago, oraindik, Epaimahai Kalifikatzaileak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen araberrako irizpideak erabiliko ditu berdinketa hausteko.

11.2.- Arestian aipatutako zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 5 egun baliodun edukiko dituzte Epaimahai Kalifikatzaileari lehiaketa faseko puntuazioei eta berdinketa hausteko irizpideei dagokienez egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda eskuratutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo/ helbidean [argitaratzeko agindua emango du Epaimahaiak, eta Administrazio Batzordeko Presidentziari helaraziko dio.](#)

Lehiaketa faseko puntuazioaren inguruan aurkeztutako erreklamazioak aztertzearen ondorioz berdinketarik gertatzen bada, eta lehen aipatutako irizpideak aplikatu behar badira berdinketa hori hausteko, eragindako pertsonen erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute 5 egun balioduneko epean, berdinketa hausteko irizpideen aurka.

Aldi berean, Administrazio Batzordeko Presidentziak aginduko du web orri horretan argitaratzeko deialdiarekin lotutako lanpostuen zerrenda, destinoa eta, hala badagokio, lanpostu horretarako eskatutako derrigorrezko hizkuntza eskakizunarekin, eta 5 egun baliodun egongo dira onartutako izangaien behin betiko zerrendan hautaketa-prozesuko lanpostuekin lotutako ordena-zenbaki berdinarekin edo txikiagoarekin ageri diren pertsonen euren lehenespen ordena adieraz dezaten eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako egiaztagiria aurkeztuz dituzten.



Lehenespen ordena ezingo da ondoren aldatu, eta dagokion epean eta moduan adierazten ez dutenek hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte.

Egiaztagiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izango dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan salbu, agiriak aurkezten ez dituenak, edo agiriak aztertzean deialdiko betekizunen bat ez duela betetzen agertzen bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

12.- KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Administrazio Batzordeko Presidentziak hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak betetzen dituztela egiaztatu duten onartutako izangaien behin betiko zerrenda igorriko dio Administrazio Batzordeari, karrerako funtzionario izendatzeko proposatuz.

Izendapena ALHAOn argitaratuko da.

Izendatutakoek hilabeteko epea izango dute lanpostua hartzeko, izendapenaren ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak, munta handiko arrazoiren bat izan ezik, Erakunde Autonomoko karrerako funtzionario izateko deialdiaren ondoriozko eskubideak galtzea ekarriko du.

Kasu horretan, Administrazio Batzordeko Presidentziak beste izendapen proposamen bat igorriko du, hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak betetzen dituztela egiaztatu duten onartutako izangaien behin betiko zerrendako hurrengo pertsonaren alde.

13.- AZKEN ARAUAK

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

— 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratua onartzen duena.

— 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.

— 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, funtzio publikoa eraberritzeko neurriena.



- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesarena.
- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituen.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.

14.- DEIALDIAREN AURKA EGITEA

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahai kalifikatzailearen jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.



ERANSKINA

GAI-ZERRENDIA

- 1.- Erantzunaren antolakuntza. Larrialdi taktika eta planak. (1)
- 2.- Esku hartzen dutenak (Ekintza taldeak). (1)
- 3.- Su-itzaltze zerbitzueta agintea eta kontrola. (2)
- 4.- Suhiltzaile-zerbitzuak eta ingurumena. (3)
- 5.- Fisikaren eta kimikaren inguruko oinarritzko kontzeptuak, materia arriskutsuen ingurukoak.
- 6.- Materia arriskutsuak (sailkapena eta identifikazioa). (3)
- 7.- Deskontaminatzea. Norbera babesteko ekipoak. Babes-mailak. (3)
- 8.- Lehergailuen inguruko intzidentziak. (3)
- 9.- Materia erregarriak edo oxidatzaileak eta peroxido organikoak. (3)
- 10.- Gasak. Problematika espezifikoak. (3)
- 11.- Likido sukoien inguruko intzidentziak.
- 12.-Aparak. (3)
- 13.-Erradioaktibitatea. (3)
- 14.-Produktu toxiko eta korrosiboak. (3)
- 15.- Agintea eta larrialdiak kontrolatzeko printzipioak. (3)
- 16.- Esku-hartze protokoloak. Esposizioaren ondoriozko osasun arazoak.
- 17.- Substantzia kaltegarriekiko esposizioa.(3)
- 18.- Suteen ikerketa.
- 19.- Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana.
- 20.- 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa.
- 21.-1335/2012 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, gailu piroteknikoen eta kartutxoaren araudia onartzen duen maiatzaren 7ko 563/2010 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 22.- Gailu piroteknikoen eta kartutxoaren araudiko 8. jarraibide tekniko osagarria.

BIBLIOGRAFIA

- 1.- Manual de protección civil (Babes zibileko eskuliburua).
- 2.- Mando y control en servicios de extinción de incendios (Su-itzaltze zerbitzueta agintea eta kontrola).
- 3.- Intervención en incidentes con materias peligrosas (Materia arriskutsuak dauden intzidentzietako esku-hartzea).
- 4.- Introducción a la investigación de incendios (Suteen ikerketen hastapenak).
- 5.- Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana.
- 6.- 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa.
- 7.- 1335/2012 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, gailu piroteknikoen eta kartutxoaren araudia onartzen duen maiatzaren 7ko 563/2010 Errege Dekretua aldatzen duena.

